CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

# JARDUEREN TXOSTENA

09

©Argitalpena: Euskadiko  Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es
Maketazioa: Cuatrobarras
Inprenta: Imprenta Berekintza
Lege Gordailua: BI-3241-09

CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

# JARDUEREN TXOSTENA 09

# AURKEZPENA

Euskadiko EGABk sortu zenetik aurten mendearen laurdena bete du. Hogeita bost urteek argiz eta ilunez nahasitako balantzea eskaintzen dute aitzindaria izan zen erakundearen jatorritik –Erreinuko EGAB baino lehen osatu zen-; hala ere, hamarkada batean ez zen eraginkorra izan, akordio-eredua zehazteko gai ez izateagatik. Arazo hori oraindik mantentzen da, gizarte- eta ekonomia-erakunde zati handi batek ahalegina egin arren. Helburua eragilea izateko Batzordearen egungo araudiak eskatzen duen ia guztien adostasuna lortzea da.

Aurten urteurrenari biribila izan arren, ez da hala gertatu balantzean. Egutegia ez da aproposa izan: hauteskundeen aurreko eta ondorengo hilabeteetan, gobernu-aldaketarekin tartean, gobernuak aztertu eta irizpena egiteko eskatutako proposamenak urriak izan dira eta, oro

har, ez dira garrantzitsuak izan. Egia da jarduerarik eza ekimen propioaren lan biziarekin orekatu dela. Ildo horri jarraiki, EGABren Tribuna arin eta egokia abian jarri dugu eta horri esker, gaurkotasuneko gaiei buruz (higiezinen krisi edo enplegu-zerbitzuetatik erregai fosilekiko hautabide edo fiskaltasuna) eztabaida interesgarriak sortu dira. Halaber, abagune ekonomikoari buruz hiru hilez behingo Buletina egin dugu eta egun hiru lan garrantzitsu garatzen ari gara honakoei buruz: gure gizartean inpaktu demografikoa, Euskadin energia berriztagarrien potentzialtasuna eta gure orainaldi eta etorkizun sozio-ekonomikoaren beharretarako hezkuntza-sistemaren egokitasuna.

Ikuspuntu honetatik harro Parlamentuak kontsultatzen dituzten ekonomia- eta gizarte-gaiei buruz iritzi adostua adierazteko. Beharrezko iritzia da eta, gainera, kontuan hartu behar da, Batzordean hurrengoen ordezkariak baitaude: enpresa- eta sindikatu-erakundeak, gizarte-ekonomia, merkataritza-ganberak, kutxa eta bankuak, nekazaritza- eta arrantza-erakundeak, kontsumitzaileen erakundeak eta unibertsitatea.

Eta ikuspuntu horretatik, EGABk hogeita bost urte hauetan izandako balantzea argi eta garbi murritza da, ondoz-ondoko gobernuen jarrerarengatik; guztiek Batzordeari ekimen ekonomiko eta aurrekontu-ekimenei buruzko informazioa lapurtu diote. Erabaki estrategikoak hartu baino lehen sortutako eztabaidan EGABri (erakundean ordezkatutako eragileen multzoari) partaidetza ukatzea ez da bidezkoa. Are gutxiago, egun Euskadiko EGAB arautzen duen legeak xedatutakoaren arabera: Batzordeari sei hilez behin berri eman behar zaio Gobernuaren ekimen ekonomiko eta aurrekontu-ekimenei buruz. Orain agindu hori betetzea besterik ez da gelditzen etorkizuneko balantzeak ilun ditzaketen itzal asko argiek piztu ditzaten.

JOSÉ LUIS RUIZ GARCÍA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Gaietako Batzordearen lehendakaria

# ZIURTAGIRIA

## JAVIER MUÑECASEK, EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO IDAZKARI NAGUSIAK

EGIAZTATZEN DU:

Lehenengoa.- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak martxoaren 5ean egindako saioan, besteak beste, honako erabakia hartu zuela:

"Bertan zeuden kideen aho batez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 2009. urteko Jarduera Txostena onartzea."

Bigarrena.- Argitalpen honek oso-osorik duela aipatu erabakian Batzordearen Osoko Bilkurak onartutako Txostenaren edukia.

Eta ondorio egokietarako, sinatzen du hau Bilbon, 2010eko martxoaren 5ean.

JAVIER MUÑECAS HERRERAS
Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen idazkari nagusia

# AURKIBIDEA

## I KAPITULUA

1- Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen historia 12
Euskadiko EGAB 13
Nork osatzen du? 14
Funtzioak 15

2- 2009an Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Organoen eta Lan Batzordeen konposizioa

Osoko Bilkura 16
Batzorde Iraunkorra 21
Garapen ekonomikoa aztertzeko Batzordea 22
Gizarte-garapena aztertzeko Batzordea 23
Txosten sozio-ekonomikoa egiteko Batzordea 25
Akitaniarekin lankidetzan jarduteko lantaldea 26

3- 2009an Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Organoek egindako saioen laburpena

Euskadiko EGABren Osoko Bilkurak egindako saioak 29
Batzorde Iraunkorrak egindako saioak 33
Lan-batzordeen jarduera 39

II KAPITULUA
Batzordearen Legean aurrez ikusitako funtzioak betetzea

Kontsulta-jarduera 46
2008ko Txosten Sozio-ekonomikoa egitea 49

III KAPITULUA
Erakunde-jarduera 53

IV KAPITULUA
Kanpoko kooperazioa

Akitaniako EEGABrekin bi aldeen arteko kooperazioa 64
Arku Atlantikoa Batzordea 69
Europako beste ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeekin kooperazioa 71

V KAPITULUA
Bitarteko materialen eta giza baliabideen kudeaketa

2009ko aurrekontua 76
Langileak Batzordearen zerbitzura 79

VI KAPITULUA
Komunikazioa, Dokumentazioa eta Argitalpenak

Komunikazioa 82

Berrien eguneroko dossierra
Prentsaren urteko dossierra
Euskadiko EGABren Buletina
EGABren Tribuna
EGABren jarduerak komunikabideetan
Prentsaurrekoak
Prentsa-oharrak
Web orria

Dokumentazioa 94

Ikuste-artxiboa
Argitalpenak

VII KAPITULUA
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari aplikatzen zaion legeria 99

# 1. KAPITULUA

## EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA

# 1. EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA

## EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEN HISTORIA

Egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen aitzindariak lehenengo munduko guda amaitu eta ondorengo urteetakoak dira. 1919. urtean Lanaren Nazioarteko Bureau izenekoa sortu zen nazioarteko batzar bezala eta bertan gobernuek, langileek eta enpresaburuek parte hartzen dute guztion artean nazioarteko legeria egiteko. Helburua lan-baldintzak hobetzea zen.

Hortik abiatuta Europan lehenengo hitzarmen-tresnak agertuz joan ziren eta egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen aitzindariak izan ziren. Lehenengo erakundea Frantzian sortu zen 1925. urtean eta geroago antzekoak sortu ziren beste Europako herrialdeetan, bereziki, II. Munduko Guda amaitu zenetik.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak, bere organo nabarmenen artean, Ekonomia eta Gizarte Batzordea sortu zuen. Izaerari eta funtzioei dagokienez, funtsezko baterakotasuna dago: kontsulta-organoak dira eta beren helburua gizarte- eta ekonomia-interes desberdinak dituzten ordezkariek gobernuen ekonomia-politikan parte hartzea da. Horrez gain, elkarren artean elkarrizketa eta lankidetza ahalbidetzen dute.

Era berean, Batzordearen jarrera ez da pasiboa; izan ere, ekimen propioa du Gobernuek eta Parlamentuak kontuan hartu behar dituzten iradokizunak edo ebazpenak planteatzeko. Kontsulta-organo bezala Gobernu eta Parlamentuarekiko autonomoa eta independentea da eta txostenak lotesleak ez izan arren, ustezko askotan derrigorrezkoak dira eta, kasu guztietan, kontuan hartu beharreko iritzi aditua azaltzen dute.

## EUSKADIKO EGAB

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea* Gobernuaren eta Parlamentuaren kontsulta-erakundea da eta bere helburua ekonomia- eta gizarte-interes desberdinen partaidetza Euskadiko ekonomia-politikan egiazkoa izatea da. Batzordeak bere nortasun juridikoa du, Autonomia Erkidegoaren Administrazioarekiko desberdina eta bere funtzioak betetzeko gaitasun eta independentzia osoa du.

Autonomia ekonomiko-finantzarioaren printzipiopean, Batzordeak bere aurrekontua onartu eta gauzatzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleitutako zenbatekoekin finantzatzen da.

2009tik Konseiluaren egoitza, Gran Vian dago, 81 zenbakiko, 7 garrenean. Legez 1984. urtean sortu zen eta 1995. urtearen amaieran hasi zen funtzionatzen.

- 4/1984 Legeak, azaroaren 15ekoak, sortu zuen eta ondoren aldatu egin da bi legeren bidez: ekainaren 30eko 15/ 1994 Legea eta, azkenekoa, ekainaren 27ko 9/1997 Legea.

1995. urtean funtzionatzen hasi zenetik, EGABk hiru agintaldi izan ditu beren Lehendakari eta Idazkari Nagusiekin eta lau urtez behin izendatu dira modu txandakatuan.

**Lehenengo agintaldian (1995-2000)** Javier Mongelos Oquiñena izan zen lehendakaria (hirugarren taldeak edo mistoak izendatu zuen). Idazkaritza Nagusia Javier Hernández Bilbaoren esku gelditu zen, Euskadiko Enpresaburuen Konfederazioari ordezkatuz (CONFEBASK).

**Bigarren agintaldian (2000-2004)** lehendakaria Rafael Puntonet del Río izan zen (Enpresaburuen Taldeak izendatu zuen) eta Idazkaritza Nagusian Manu Aramburu Olaetxeak lagundu zuen sindikatuen taldea ordezkatuz.

**Hirugarren agintaldia, 2004**tik aurrera. Antxon Lafont Mendizábali izendatu zitzaion sindikatu-taldearen aldetik eta Idazkari Nagusia Javier Muñecas Herreras izan zen hirugarren taldeari ordezkatuz. 2008ko uztailean Antxon Lafonten dimisioa onartu zen. Hilabete honetan Osoko Bilkurak lehendakari berri bezala José Luis Ruiz García izendatu zuen, sindikatuen taldeak proposatuta.

## NORK OSATZEN DU?

Batzordea hogeita hamabi pertsonek osatzen dute hurrengo konposizioarekin bat:

1. Zortzi batzordekide, ordezkaritza duten sindikatu-erakunde eta –konfederazioei ordezkatuz.

2. Zortzi batzordekide, enpresa-konfederazioei ordezkatuz.

3. Zortzi batzordekide, Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberei, Aurrezki Kutxei eta Erakunde Finantzarioei, Kooperatibei, Lan Sozietate Anonimoei, Arrantza Erakundeei, Nekazaritza Erakundeei, Kontsumitzaileen Erakundeei eta Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkatuz.

4. Zortzi aditu, prestakuntza, esperientzia eta independentzia aitortuarekin.

Batzordeak Lehendakaria eta Idazkari Nagusia ditu. Gainera, zerbitzu teknikoez, administratiboez eta dokumentazio-zerbitzuez hornituta dago.

Batzordeko kideak lau urtez izendatzen dira, alde batera utzita berriz hautatuak izateko duten aukera.

Osoko Bilkura erabakitzeko organo gorena da. Bere funtzioen artean dago Lehendakaria proposatzea, Idazkari Nagusia izendatzea eta lan-batzordeak sortu eta deuseztatzea, baita Erakundearen aurrekontuak, urteko txosten ekonomikoa eta

jarduera-txostena onartzea ere. Era berean, batzorde desberdinek bidalitako irizpen-aurreproiektuak, ebazpenak eta txostenak onartzen ditu.

## FUNTZIOAK

Ekonomia- eta gizarte-politikarekin zerikusia duten lege-proiektuei buruz derrigorrez txostena egitea, Autonomia Erkidegoko Aurreko Orokorren Legearen kasuan izan ezik.

Gobernuaren iritziz garrantzi berezia duten ekonomia- eta gizarte-politikako dekretu-proiektuei buruz derrigorrez txostena egitea.

Bere aginpideko arloei buruz Gobernuaren proposamenak formulatzea.

Ekimen propioz edo Gobernuak eskatuta, irizpenak, ebazpenak edo txostenak egitea aurreko atalek aipatzen dituzten arloetan.

Parlamentuak egindako kontsultei erantzutea.

Gobernuak egindako Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jarduera ekonomikoaren plangintzan parte hartzea.

EAEko ekonomia- eta gizarte-egoerari buruz gogoetak azaltzen dituen txostena urtero egin eta Gobernuak nahiz Eusko Legebiltzarrak aztertzeko aurkeztea.

# 2.

# 2009AN EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN ORGANO ETA LAN-BATZORDEEN KONPOSIZIOA

## OSOKO BILKURAREN KONPOSIZIOA

| | |
|---|---|
| Lehendakaria | José Luis Ruiz García |
| Idazkari Nagusia | Javier Muñecas Herreras |

### **A** TALDEA

Sindikatu Konfederazio edo Erakundeek izendatutakoak:

Eusko Langileen Alkartasunaren (ELA) proposamenez:

| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|
| Mikel Noval Fernández | Alazne Alonso Izurza |
| Julene Gabiola Amallobieta | Janire Domínguez Pérez |
| German Kortabarria Igartua | Kepa Estévez Sánchez |
| Bizente Harriola Albizu | Itziar Gabikagogeaskoa Arrasate |

Euskadiko Langileen Batzordeen Sindikatu Konfederazioaren (CC.OO) proposamenez:

| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|
| Eduardo García Elosua | Antxon Tomasena Alzuri |
| Jaime Gómez Devesa | Felisa Piedra Gao |

Langile Abertzaleen Batzordearen (LAB) proposamenez:

| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|
| Rafael Izquierdo Sánchez | Oihan Ostolaza Arruabarrena |

Euskadiko Langileen Batasun Orokorraren (UGT) proposamenez:

| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|
| Carlos Trevilla Acebo | Raúl Arza Vélez |



## B TALDEA

Euskadiko Enpresa Konfederazioak (Confebask) izendatutakoak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Fco. Javier Azpiazu Lasuen | Eduardo Aréchaga Cilleruelo |
| Raquel Ecenarro del Río | Jon Bilbao Saralegui |
| Jaime Fernández Alcedo | José Manuel Farto López |
| Manuel Guerrero Igea | Ana García Polanco |
| Virginia Múgica Conde. | J. Ramón Apezetxea Escudero |
| Aitor Otaola Díaz de Alda | José Miguel Ayerza Mendiburu |
| Patxi Sasigain Saez de Buruaga | Ignacio Saez de Gorbea |
| José Guillermo Zubia Guinea | Juan Ugarte Aguirrezabal |

## C TALDEA

Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde eta elkarte bakoitzak izendatutakoak honako hauek dira:

Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Juan Luis Martínez Ordorica | Amaia Atutxa Atutxa |

Aurrezki-kutxak eta erakunde finantzarioak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Pedro Martínez de Alegría Pinedo | Rafael Aranguren Ilardia |

Kooperatibak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Fco. Javier Sanz Santaolalla | Joseba Ardanza Billelabeitia |

Lan Sozietate Anonimoak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Olatz Jauregizar Ugarte | José Hernández Duñabeitia |

Arrantza Erakundeak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Miren Garmendia Zeberio | J. Pablo Rodríguez-Sahagun González |

Nekazaritza Erakundeak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Unzalu Salterain Basagutxibeaskoa | Alfredo Montoya Estibalez |

Kontsumitzaileen Erakundeak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Jon Ariño Gallego | Koldo Nabaskues Simón |

Euskal Herriko Unibertsitatea:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Juan Hernández Zubizarreta | Mikel de la Fuente Lavín |

## **D** TALDEA

### Adituen d) taldea osatzen duten batzordekideak:

Mª Luz de la Cal Barredo
Antón Borja Álvarez
Rafael Puntonet del Rio
Felicísimo Ayastuy Sáenz
Ignacio Barrenechea González
José Mª Uranga Ayestaran (dimite a petición propia en junio)
Roberto Bermejo Gómez de Segura
Aitor Bengoetxea Alkorta



# EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDE IRAUNKORRAREN KONPOSIZIOA

| | |
|---|---|
| Lehendakaria | José Luis Ruiz García |
| Idazkari Nagusia | Javier Muñecas Herreras |

## A) TALDEA

Sindikatu Konfederazio edo Erakundeen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Mikel Noval Fernández | Julene Gabiola Amallobieta |
| Eduardo García Elosua | Jaime Gómez Devesa |
| Rafael Izquierdo Sánchez | Oihan Ostolaza Arruabarrena |
| Carlos Trevilla Acebo | Raúl Arza Vélez |

## B) TALDEA

Euskadiko Enpresa Konfederazioaren (Confebask) aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Jaime Fernández Alcedo | Aitor Otaola Díaz de Alda |
| Virginia Múgica Conde | Eduardo Arechaga Cilleruelo |

## C) TALDEA

Autonomia Erkidegoko Sektore, Erakunde eta Elkarteen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Juan Luis Mtnez. Ordorica | Juan Hernández Zubizarreta |
| Olatz Jaureguizar Ugarte | Jon Ariño Gallego |
| Fco. Javier Sanz Santaolalla | Unzalu Salterain Basagutxibeaskoa |
| Pedro Mtnez. de Alegría Pinedo | Miren Garmendia Zeberio |

**D)** TALDEA

Adituak

Felicísimo Ayastuy Sáenz
Roberto Bermejo Gómez de Segura
José Mª Uranga Ayestarán

## GARAPEN EKONOMIKOA AZTERTZEKO BATZORDEAREN KONPOSIZIOA

Lehendakaria
Batzorde bakoitzean izendatzen da:

**A)** TALDEA

Sindikatu Konfederazio edo Erakundeen aldetik:

| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|
| Julene Gabiola Amallobieta | Mikel Noval Fernández |
| Olatz Jaureguizar Ugarte | Eduardo García Elosua |
| Fco. Javier Sanz Santaolalla | Oihan Ostolaza Arruabarrena |
| Pedro Mtnez. de Alegría Pinedo | Raúl Arza Vélez |

**B)** TALDEA

Euskadiko Enpresa Konfederazioaren (Confebask) aldetik:

| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|
| Eduardo Aréchaga Cilleruelo | Patxi Sasigain Sáenz de Buruaga |
| Aitor Otaola Díaz de Alda | Ana García Polanco |
| Jon Bilbao Saralegui | Virginia Múgica Conde |

### C) TALDEA

Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde eta elkarteen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Juan Luis Mtnez. Ordorica | |
| Jon Ariño Gallego | Koldo Navascues Simón |
| Miren Garmendia Zeberio | Juan Pablo Rodríguez Sahagún |
| Pedro Mtnez. de Alegría Pinedo | Rafael Aranguren Ilardia |

### D) TALDEA

Adituak:

| Titularrak |
|---|
| Roberto Bermejo Gómez de Segura |
| Antón Borja Álvarez |

## GIZARTE-GARAPENA AZTERTZEKO BATZORDEAREN KONPOSIZIOA

Lehendakaria
Batzorde bakoitzean izendatzen da:

### A) TALDEA

Sindikatu Konfederazio edo Erakundeen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Bizente Harriola Albizu | Itziar Gabikagogeaskoa Arrasate |
| Felisa Piedra Gao | Jaime Gómez Devesa |
| Rafael Izquierdo Sánchez | Oihan Ostolaza Arruabarrena |
| Carlos Trevilla Acebo | Raúl Arza Vélez |

## **B)** TALDEA

Euskadiko Enpresa Konfederazioaren (Confebask) aldetik:

| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|
| Jon Bilbao Saralegui | Jaime Fernández Alcedo |
| Virginia Múgica Conde | Raquel Ecenarro Del Rio |
| Eduardo Arechaga Cilleruelo | |

## **C)** TALDEA

Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde eta elkarteen aldetik:

| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
|---|---|
| Olatz Jaureguizar Ugarte | José Hernández Duñabeitia |
| Unzalu Salterain Besagutxibeaskoa | Alfredo Montoya Estibalez |
| Juan Hernández Zubizarreta | Mikel De La Fuente Lavín |
| Fco. Javier Sanz Santaolalla | Joseba Ardanza Billelabeitia |

## **D)** TALDEA

Adituak:

| **Titularrak** |
|---|
| Mª Luz de la Cal Barredo |
| Aitor Bengoetxea Alkorta |

## TXOSTEN SOZIO-EKONOMIKOA EGITEKO BATZORDEAREN KONPOSIZIOA

Lehendakaria
Batzorde bakoitzean izendatzen da:

### A) TALDEA

Sindikatu Konfederazio edo Erakundeen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Mikel Noval Fernández | Julene Gabiola Amallobieta |
| Antxon Tomasena Alzuri | Eduardo García Elosua |
| Rafael Izquierdo Sánchez | Oihan Ostolaza Arruabarrena |
| Raúl Arza Vélez | Carlos Trevilla Acebo |

### D) TALDEA

Euskadiko Enpresa Konfederazioaren (Confebask) aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Eduardo Aréchaga Cilleruelo | Patxi Sasigain Saenz De Buruaga |
| Jaime Fernández Alcedo | Aitor Otaola Díaz De Alda |

### C) TALDEA

Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde eta elkarteen aldetik:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Rafael Aranguren Illardia | Pedro Mtnez. De Alegría Pinedo |
| Miren Garmendia Zeberio | Juan Pablo Rodríguez-Sahagún |
| Juan Hernández Zubizarreta | Mikel De La Fuente Lavín |
| Fco. Javier Sanz Santaolalla | Javier Salaberria Amesti |

**D)** TALDEA

Adituak:

**Titularrak**

Felicísimo Ayastuy Sáenz
Antón Borja Álvarez
Ignacio Barrenechea González
Mª Luz De La Cal Barredo

Batzordearen Idazkaritza Teknikoa

Arantza Unzurrunzaga Estefanía

## AKITANIAREKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO LANTALDEAREN KONPOSIZIOA

Lehendakaria
Batzorde bakoitzean izendatzen da:

**A)** TALDEA

Sindikatu Konfederazio edo Erakundeen aldetik:

**Titularrak**

Kepa Estévez Sánchez
Jaime Gómez Devesa
Raúl Arza Vélez

**B)** TALDEA

Euskadiko Enpresa Konfederazioaren (Confebask) aldetik:

**Titularrak**

Felicísimo Ayastuy Sáenz
Jaime Fernández Alcedo

## C) TALDEA

Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde eta elkarteen aldetik:

**Titularrak**

José María Uranga Ayestarán

## D) TALDEA

Adituak:

**Titularrak**

Roberto Bermejo Gómez de Segura
Rafael Puntonet del Río

Batzordearen Idazkaritza Teknikoa

Arantza López De Munain Zulueta

# 3.

# 2009AN EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN ORGANO ETA LAN-BATZORDEEK EGINDAKO SAIOEN LABURPENA

# OSOKO BILKURAK EGINDAKO SAIOAK

## 2009ko otsailaren 20an

- 2008ko abenduaren 16an Osoko Bilkurak egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.
- EGABk kontratatzeko barruko argibideak onartu dira.

## 2009ko ekainaren 5ean

- 2009ko otsailaren 20an Osoko Bilkurak egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.
- 2008. ekitaldiari dagokion aurrekontuaren kitapena eta ikuskaritzaren txostena onartu da.
- 2009. aurrekontuan akats aritmetikoaren zuzenketa onartu da.
- 2008ko Jardueren Txostena onartu da.
- EGAB berritzeko prozesuari buruz, Lehendakariak Batzordekideek egindako izendapenen egoeraren berri eman du.
- Lehendakariak Lehendakari berriarekin elkarrizketa eskatu duela jakinarazi du. Besteak beste, Gobernuak Batzordea modu biziago eta zabalagoan kontuan har dezala eskatu nahi dio. Ildo horri jarraiki, egokia litzateke EGABri kontsultatzea araudi-ekimen guztiak eta hori Sail guztiek egitea.

### 2009ko uztailaren 24an

- Osoko Bilkura honetan Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburua izan da, orokorrean eta EGABri dagokionez Sailaren planak eta proiektuak azaltzeko.

Agerraldia amaitutakoan, berez Osoko Bilkuraren saioa egin da hurrengo gaiekin:

- Osoko Bilkurak 2009ko ekainaren 5ean egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.
- Lehendakariak, besteak beste, honakoen berri eman du:
  - Berritze-prozesuan a, b eta c taldeen izendapen guztiak egin dira, ELA eta LAB sindikatuei dagozkienak izan ezik.
  - EGAB sortzen zuen Legearen 25. urteurrena: irailaren hasieran ospatuko da, egoitza berriaren inaugurazioarekin bat.
  - Kanpoko kooperazioa: Iñaki Arriola Garraio Sailburuari Akitaniako EEGABrekin lankidetzan egindako ikerketak aurkeztu zaizkio: “Garraioaren Europako sarren liburu berdea” eta “EAE eta Akitaniaren arteko hurbiltasuneko garraioa”. Bi lanak hemendik gutxira aurkeztuko zaizkio Akitaniako Eskualdeko Lehendakariordeari.
  - Elkarrizketa Lehendakariarekin: Lehendakariak EGABren jardueren eta berritze-prozesuaren egoeraren berri eman zion.

### 2009ko urriaren 23an

- Osoko Bilkurak 2009ko uztailaren 24an egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.
- “Haurtzaro eta Nerabezaroari buruzko Legearen Aldaketaren Lege Proiektuari” buruzko irizpena onartu da.
- 2008ko Txosten Sozio-ekonomikoa onartu da.
- Berritze-prozesuari dagokionez, Lehendakariak jakinarazitakoaren arabera, jada Lehendakaritzari bidali zaizkio 24 batzordekideen izendapenak a, b eta c taldeen barruan. CCOO eta UGTk izendatutako sindikatu-taldearen 8 kideak barne daude.

- Lehendakariak Legebiltzarreko Gizarte Politika, Lan eta Berdintasunaren Batzordean urriaren 14an izandako agerraldiaren berri eman du.
- Gizarte-elkarrizketaren ondorioz Enplegu Sailetik agindu bati buruz irizpena egitea eskatu dela jakinarazi du Lehendakariak. Premiaz izapidetuko da proba pilotu bezala irizpena egiteko epea nola labur daitekeen egiaztatzeko.

## 2009ko azaroaren 13an

- Osoko Bilkurak 2009ko urriaren 23an egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.
- 2009. urteko aurrekontuan hainbat kreditu-transferentzia onartu da.
- “Lan-merkatua aztertzeko laguntzak arautzen dituen agindua aldatzeko aginduari” buruzko irizpena onartu da.
- Jardunean dauden irizpen eta ekimen propioen egoeraren berri eman da.

## 2009ko abenduaren 11n

- Osoko Bilkurak 2009ko azaroaren 13an egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.
- Lehendakariaren proposamenez, gai-zerrendan puntu berri bat erantsi da, hain zuzen ere, hala badagokio, “Euskadin gizartean esku hartzearen eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektuari dagokion Irizpen Proiektua” onartzeari buruz. Landu ondoren, irizpena onartu egin da.
- “Euskal Autonomia Erkidegoko langabetuen kontratazioan laguntzeko ohiz kanpoko laguntzen deialdia arautzen duen Agindu Proiektuari” buruzko irizpena onartu da.
- Lehendakariak jakinarazi du elkarrizketa eskatu diola Hezkuntza Sailburuari ekimen propioko ikerketa aurkezteko. Hori EAEko behar sozio-ekonomikoekiko hezkuntza-sistema

moldatzeari buruz egin da. Gainera, EGABren hurrengo Tribunan Emilio Ontiveros izango da protagonista.

### 2009ko abenduaren 21ean

- Osoko Bilkurak 2009ko abenduaren 11n egindako saioaren akta irakurri eta onartzea.
- 2010. urterako aurrekontua onartu da.
- Lehendakariak urteko jardueraren balantzea egin du.

## BATZORDE IRAUNKORRAK EGINDAKO SAIOAK

### 2009ko urtarrilaren 14an

- Batzorde Iraunkorrak 2008ko abenduaren 9an egindako bilearen akta irakurri eta onartzea.
- Hurrengo gaiei buruz ekimen propioko hiru azterketa egitea onartu da: demografia, energia berriztagarriak eta hezkuntza sistema eta giza kapitala; lehenengoa gizarte-garapenaren batzordeari esleitu zaio eta beste biak garapen ekonomikoaren batzordeari.
- EGABren Tribunaren lehenengo ediziorako txostengileen proposamenak jasotzeko epea ireki da. Adostutako lehenengo gaia, hau da, egungo krisi ekonomikoa landu beharko da.
- Lehendakariaren informazio-puntuan, honek jakinarazi du, besteak beste, Osoko Bilkuran agertu eta krisiaren kontrako Gobernuaren neurriak azaltzeko Lehendakariordearen erantzunik ez duela jaso. Gainera, lanean dihardu EGABren kontratazioari buruz barneko arauak izateko xedez.

### 2009ko otsailaren 6an

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko urtarrilaren 14an egindako bilearen akta irakurri eta onartzea.
- Sektore Publikoaren Legea aplikatzearen ondorioz, EGABren kontratazioari buruzko barneko arauak onartu dira.
- EGABren lokak berriaren obren esleipen-prozesuaren egoeraren berri eman da.
- 2009ko urtarrilaren 29an legez Batzordea berritzeko denboraldia hasi dela jakinarazi da.

## 2009ko apirilaren 1ean

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko otsailaren 6an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea.
- Euskadiko EGABren egoitza berriari dagozkion berritze- eta moldatze-obrak behin-behinekoz BYCO, S.A. enpresari esleitzea onartu da.
- Batzordekide berriak izendatzeko kide guztiei bidaliko zaien eskutitzaren testua onartu da. Izendapenak egiteko epea aipatuko da eta 2009ko maiatzaren 18a izango da.
- EGABren hurrengo Tribunarako gai eta txostengileei buruz eztabaidatu da.
- Akitaniako EEGABrekin bi aldeen arteko lankidetzaren esparruan egiten ari diren lanen egoerari eta langileen gaiei buruz jakinarazi du Lehendakariak.
- Javier Sanz Kooperatiben ordezkariaren esanetan, legez izendatzen da C taldearen aldetik aho batez Juan Mª Otaegui jauna EGABren lehendakari berria izateko hautagai bezala.

## 2009ko apirilaren 24an

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko apirilaren 1ean egindako bileraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2008ko jardueren txostenaren proiektua onartu da.
- Komunikazio, prentsa eta irudiaren zerbitzu-kontratua sei hilabetez luzatzea onartu da.
- Proiekzio demografikoek EAEn izango duten ekonomia- eta gizarte-inpaktuei buruzko ekimen propioaren ikerketa IKEI, S.A. enpresari esleitzea onartu da.
- Garraioaren liburu berdearen eta EAE eta Akitaniaren artean bidaiarien hurbiltasuneko garraioaren arloan Akitaniako EEGABrekin lankidetzan egiten ari diren lanei buruz zenbait erabaki hartu dira.

### 2009ko maiatzaren 19an

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko apirilaren 1ean egindako bilera-ren akta irakurri eta onartzea.
- 2008ko aurrekontuaren kitapena eta ikuskaritza-txostena onartu dira.
- 2009ko ekainaren 5erako Osoko Bilkuraren deialdia egin da.
- EGABn administrazio- eta dokumentazio-lanaren funtziona-menduari buruz ikerketa egiteko LKSri lankidetza-proposa-men profesionala eskatzea erabaki da.

### 2009ko ekainaren 24an

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko maiatzaren 19an egindako bile-raren akta irakurri eta onartzea.
- EGABren egoitza berria altzariez hornitzeko kontratua "ICA-ZA" enpresari esleitu zaio.
- EGABren kudeaketa ekonomiko-finantzario eta aurrekon-tuzkoaren lege-oinarriaren analisiari buruzko puntua landu da.
- EGABn administrazio-langileen egoerari buruzko ikerketa egiteko LKSk formulatutako eskaintza onartu da.
- Jardunean dauden ekimen propioko hiru ikerketen egoera-ren berri eman da: "Proiekzio demografikoak", "Hezkuntza-sistema eta giza kapitala" eta "Energia berriztagarrien euskal potentziala".
- EGABren berritze-prozesuaren esparruan nekazaritza-erakun-deek ordezkariak izendatzeko oraindik ez direla adostasunera iritsi jakinarazi da.
- Lehendakariak kanpoko kooperazioarekin zerikusia duten gai zehatzen berri eman du: Akitaniarekin eta RTArekin bi aldeen arteko kooperazioa.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sailburu berria EGABren aurrean agertzeko eskaera egitea onartu da, ekonomiaren arloan Gobernuaren planak azal ditzan. Halaber, EGABren Legeak 3.3. artikuluan aipatutako sei hilez behingo txoste-na eskatu nahi zaio.

### 2009ko uztailaren 15ean

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko ekainaren 24an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea.
- Berak eskatuta, Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburua EGABren aurrean agertzeko 2009ko uztailaren 24an ohiz kanpoko Osoko Bilkuraren deialdia egin da.
- Itsas energia berriztagarriei buruzko RTAren lantaldea Bilbon, Euskadiko EGABren egoitzan, 2009ko irailaren 28an eta 29an bilduko dela jakinarazi da. Era berean, RTAren lehendakari berri bezala Pablo Coto Kantabriako EGABren lehendakariaren izendapenaren berri eman da.
- Egoitza berria inauguratzeko Lehendakariari eta Europako EGABren lehendakariari gonbita luzatu zaiela jakinarazi da. Data oraindik zehazteke dago.

EGAB berritzeari dagokionez, nekazaritza-erakundeek jada ordezkariak izendatzeko adostasuna lortu dutela jakinarazi da.

### 2009ko irailaren 29an

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko uztailaren 15ean egindako bileraren akta irakurri eta onartzea.
- Berritze-prozesuari dagokionez, CCOO eta UGT sindikatuek bien artean, lehenengoak bost ordezkarirekin eta bigarrenak hirurekin, sindikatu-taldearen 8 batzordekideak izendatuko dituztela iragarri dute, ELAk eta LABk izendatzen ez dituztenez.
- Lehendakariaren esanetan, egoitza berriaren inaugurazioa eta EGABren sorrerari buruzko Legearen 25. urteurrenaren ospakizuna bat etorriko dira. Ekitaldia urriaren 7an egingo da eta Lehendakaria eta Legebiltzarreko Lehendakaria bertan izatea aurrez ikusia dago.
- Ekimen propioko ikerketen, txosten sozio-ekonomikoaren eta irizpenen egoeraz jakinarazi da.
- Lehendakariaren informazio-puntuan, José Luis Ruizek jakinarazi ditu, besteak beste, kanpoko kooperazioaren jarduerak eta hurrengo Tribunan txostengilea Manuel Pimentel Laneko Ministro ohia izango dela.

### 2009ko urriaren 16an

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko irailaren 29an egindako bilera-ren akta irakurri eta onartzea.
- Jardunean dauden irizpenen egoeraren berri eman da.
- 2009ko urriaren 23rako ohiz kanpoko Osoko Bilkuraren deial-dia egin da.
- Honako ekimen propioko ikerketak enkantean jartzeko orriak onartu dira: "Hezkuntza-sistema EAEko jarduera sozio-eko-nomikoaren beharrei moldatzea" eta "EAEn energia berrizta-garriak garatzea".

### 2009ko azaroaren 4an

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko irailaren 29an egindako bilera-ren akta irakurri eta onartzea.
- Irailaren 30ean izandako aurrekontuaren betetze-mailaren berri eman da.
- Osoko Bilkurak lantzeko, aurrekontuaren zenbateko guztia al-datu gabe aurrekontuen kreditu-transferentzien proposame-na onartu da.
- Irizpen eta ekimen propioko ikerketen egoera jakinarazi da.
- 2009ko azaroaren 13rako Ohizko Osoko Bilkuraren deialdia egin da.
- Lehendakariak jakinarazitakoaren arabera, Lehendakariari jada bidali zaio a, b eta c taldeen 24 batzordekideen izenda-pena, baita sindikatu-taldearen izendapenei buruzko egoera aztertzeko gutuna ere.

### 2009ko azaroaren 11n

- Enpleguaren Euskal Zerbitzua-Lanbide sortzeko bilera mono-grafikoa da. Horretarako, EAEko Aurrekontu Orokorren Le-gean bigarren xedapen osagarria erantsiko da. Gaiari buruz eztabaidatu da akordio edo erabaki komunetara iritsi gabe.

### 2009ko azaroaren 25ean

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko azaroaren 4an eta 11n egindako bileren aktak irakurri eta onartzea.
- Jardunean dauden irizpenen egoeraren berri eman da.
- 2009ko abenduaren 11rako Ohiz Kanpoko Osoko Bilkuraren deialdia egin da.
- 2010erako aurrekontuaren zirriborroari buruz lehenengo azterketa egin da.
- Erakundeek EGABren aretoak erabiltzeko irizpideen buruzko dokumentua onartu da.
- Lehendakariaren informazio-puntuan LKS egiten ari den EGABren administrazio-langileei buruzko ikerketaren egoeraren berri eman da.

### 2009ko abenduaren 11n

- Batzorde Iraunkorrak 2009ko azaroaren 25ean egindako bilearen akta irakurri eta onartzea.
- 2010eko aurrekontuaren aurreproiektua onartu da.
- Hurrengo batzorde iraunkorraren bilerarako utzi da “EAEn energia berriztagarrien garapena” izeneko ekimen propioko ikerketaren esleipena.
- LKSk egindako diagnostikoan oinarrituta, administrazio-langileen funtzionamendu hoberako proposamena formulatu da eta batzordeak onartu egin du.
- 2009ko abenduaren 21erako Ohiz Kanpoko Osoko Bilkuraren deialdia egin da 2010. urterako aurrekontuaren proiektua onartzeko.
- Lehendakariaren esanetan, Ekonomia Sailburuaren erantzunik ez da jaso EGABren Osoko Bilkuran krisiaren aurrean Sailak dituen planak azaltzeko gonbitari buruz. Gonbidapena errepikatzea egokitzat jo da.

# LAN-BATZORDEEN JARDUERA

## GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAREN BILERAK

### 22009ko otsailaren 25ean

- "EAEn hezkuntza-sistema eta giza kapitalari" buruz ikerketa kontratatzeko oinarri teknikoak eztabaidatu dira. Idazkaritza Teknikoak hainbat aholkularitzekin bilera izan beharko du kontratazioaren oinarriak behin betiko definitzeko zenbait gai argitzearren. Aholkulariak batzordekideek proposatu dituzte.

### 2009ko uztailaren 21ean

- "EAEn hezkuntza-sistema eta giza kapitalari" buruzko ikerketaren edukien eta helburuen proposamena eztabaidatu ondoren, Idazkaritza Teknikoari ikerketaren antolaketa-proposamen berria egin dezan eskatu zaio.

### 2009ko irailaren 22an

- EAEn energia berriztagarrien garapenaren arloan ekimen propioko ikerketa kontratatzeko oinarriak eztabaidatu eta onartu dira. Lizitazio-prozeduraren publizitate zabala egitea egokitzat jo da, EGABren web orriak eskuratzen duenetik urrunago. EHAAn prozedura iragartzea proposatzen da.

### 2009ko urriaren 9an

- "EAEn hezkuntza-sistema eta giza kapitala" ekimen propioko ikerketa kontratatzeko oinarriak eta planteamendua onartu dira. Halaber, ikerketaren izenburua aldatuko da eta honakoa jarriko zaio: "Hezkuntza-sistema EAEko jarduera sozio-ekonomikoaren beharretara moldatzea".

### 2009ko azaroaren 13an

- Xabier Garmendia Industria eta Energia Sailburuordeak ezin duenez etorri, bere ordez José Ignacio Hormaetxea

Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaria izatea proposatu da. Desiragarria litzateke EGABri luzatu behar zaion irizpidea Gobernuarena izatea eta, hala, Sailburuordea bertan izatea, beraz, data berria finkatzea adostu da Garmendia jaunak parte hartzeko.

- Energia berriztagarrien arloan Euskadiko EGABren ikerketa kontratatzeko lehiaketan jasotako eskaintzen berri eman da.

### 2009ko azaroaren 27an

- Xabier Garmendia Industria eta Energia Sailburuordearen, José Ignacio Hormaetxe EEEko Zuzendari Nagusiaren eta Chechu Saez de Ormijana Plangintza eta Ikerketa Arloko Zuzendariaren Agerraldia Euskadiko EGAB energia berriztagarrien ikerketari buruz egiten ari den prestaketaren esparruan.
- Aurreko ikerketa enkantean jartzeko lehiaketan jaso diren proposamenen balorazioari buruzko puntua ez da landu, azaroaren 25ean lehendakariak egindako ekimen propioko ekimenen lizitazioan eskaintzak baloratzeko barruko prozeduraren arauak eragiten baitio.

### 2009ko abenduaren 9an

- Energia berriztagarriei buruzko ikerketaren lizitazio-prozeduran jasotako balorazioaren behin-behineko proposamena egin da organo esleipendunari jakinarazteko.

## GIZARTE GARAPENAREN BATZORDEAREN BILERAK

### 2009ko otsailaren 18an

- “OSALAN Lanerako Segurtasun eta Osasunaren Euskal Erakundearen teknikariek enpresetan eta lan-zentroetan segurtasun- eta osasun-baldintzak egiaztatzeko gaitze- eta antolaketa-baldintzak eta –prozedura arautzen duen Dekretu Proiektuari” buruz irizpena egitearen bideragarritasunari dagokionez eztabaida. Lehenik eta behin, aipatu proiektua OSALANeko Kontseiluari bidali behar zaiola erabaki da. Era

berean, irizpena egiteko lanekin aurrera ez egitea erabaki da.

### 2009ko irailaren 25ean

- Jesús Gutiérrez Jodrá EAEko Haurren eta Nerabeen Defentsariaren agerraldia.
- "Haurrak eta Nerabeak defendatzeari buruzko Legea aldatzen duen Aurreproiektuari" buruzko irizpen-aurreproiektuari buruzko eztabaida. Eztabaidatutako irizpen-aurreproiektua abiapuntutzat hartuta, berriz idaztea erabaki da bileran egindako gogoetak sartzeko. Aldaketa sartu ostean testua kide guztiei bidali zaie eta Irizpen Proiektua onartu da.

### 2009ko urriaren 30ean

- "Etxebizitzaren Prestazio Osagarria Arautzeko Dekretuaren Proiektuari" buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatzea. Batzordearen iritziz, araua behar bezala baloratzeko, Oinarrizko Errentari buruzko Dekretuarekin balorazio bateratua egin behar da. Azkenekoa orain Gobernua izapidetzen ari da Etxebizitzaren Prestazio Osagarriari dagokionarekin batera. Hori ez zaio EGABri bidali. Bi arauek zuzeneko harremana dute. EGABko Lehendakariari eskatu zaio, erabakia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari jakin diezaion. Ondorioz, irizpena egiteko lanak etetea erabaki da.
- "2008ko uztailaren 30eko Agindua, lan-merkatuaren azterketarako laguntzak arautzen dituena, aldatzeko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburuaren Agindu Proiektuari" buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatzea. Irizpen-proiektua onartu da eta horri EGABren 6/08 irizpena erantsi zaio, onartutako proiektuan irizpen hori aipatzen baita.

### 2009ko azaroaren 16an

- "EAEn aurrez ikusitako eboluzio demografikoaren ekonomia- eta gizarte-inpaktua" ekimen propioko ikerketa egiteko lanen martxari buruz jakinarazi da.
- "Euskal Autonomia Erkidegoan langabetuak kontratatzen laguntzeko ohiz kanpoko laguntzen deialdiari buruzko

Agindu Proiektuaren" irizpen-aurreproiektua eztabaidatzea. Saioan adostasunik ezin denez lortu, azaroaren 18rako bilera berriaren deialdia luzatu da.

### 2009ko azaroaren 18an

- "Euskal Autonomia Erkidegoan langabetuak kontratatzen laguntzeko ohiz kanpoko laguntzen deialdiari buruzko Agindu Proiektua" eztabaidatzen jarraitzea. Eztabaida egokiak egon ostean, irizpen-proiektua onartu da.

### 2009ko abenduaren 9an

- Alfonso Gurpegi Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariaren agerraldia.
- "Euskadin gizarte esku-hartzearen eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari" buruzko irizpen-aurreproiektua eztabaidatzea. Irizpen Proiektua onartu da.

## TXOSTEN SOZIO-EKONOMIKOARI BURUZKO BATZORDEAREN BILERAK

### 2009ko urtarrilaren 28an

- Hurrengo edizioko txosten sozio-ekonomikoaren edukia eta egitura onartu da, baita lan-egutegia ere.

### 2009ko ekainaren 5ean

- Lan-egutegia aldatu da, iturri desberdinetatik datuak lortzeko prozesua atzeratu baita.
- Egindako zirriborroak eta kideen ekarpenak aztertu eta eztabaidatu dira.

### 2009ko uztailaren 3an

- Batzordearen lanekin aurrera egiten da: lantzen diren kapitulu desberdinei buruz erabakiak eztabaidatu eta hartu dira.

### 2009ko irailaren 23an

- Lanekin jarraitzea. Eduki desberdinak eztabaidatu ondoren, Batzordeak astebeteko epea ematea erabaki du kide guztiek Txostenaren Proiektua jasotzen duten unetik zenbatzen hasita, aztertu eta, hala badagokio, alegazioak bidaltzeko. Hori egin ostean eta bilera berria gauzatu gabe, 2008ko Txosten Sozio-ekonomikoaren Proiektua 2009ko urriaren 9an onartu da.

# 2. KAPITULUA

## EGAB-REN LEGEAN AURREZ IKUSITAKO FUNTZIOAK BETETZEA

# 1.

# KONTSULTA-JARDUERA

## 1/2009 IRIZPENA: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrei eta Nerabeei Arreta eta Babesa eskaintzeari buruzkoa, aldatzen duen Legearen aurreproiektua

Sarrera-data EGABn: 2009ko uztailaren 17a.

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilera: 2009ko irailaren 25ean. Batzordearen aurrean Jesús Gutiérrez Haur eta Nerabeen Defentsaria agertu da.

Emaitza: Batzordekideek emandako iritzi eta proposamenetatik abiatuta idatzi den Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2009ko urriaren 30ean egin du eta Irizpena aho batez onartu da.





## 2/09 IRIZPENA, 2008ko uztailaren 30eko Agindua, lan-merkatua aztertzeko laguntzak arautzen dituena, aldatzeko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburuaren Aginduari buruzkoa.

Sarrera-data Euskadiko EGABn: 2009ko urriaren 22a.

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilera: 2009ko urriaren 30ean.

Emaitza: Batzordekideek emandako iritzi eta proposamenetatik abiatuta idatzi den Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkurak lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2009ko azaroaren 13an egin du eta Irizpena egitea aho batez onartu da.

## 3/2009 IRIZPENA: Euskal Autonomia Erkidegoko langabetuak kontratatzeko laguntzeko ohiz kanpoko laguntzen deialdiari buruzko Agindu Proiektua.

Sarrera-data EGABn: 2009ko azaroaren 4a.

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilerak: 2009ko azaroaren 16a eta 18a.

Emaitza: Batzordekideek emandako iritzi eta proposamenetatik abiatuta idatzi den Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakietatik, Irizpen Proiektua egin da EGABren Osoko Bilkuran lantzeko. EGABk Osoko Bilkura 2009ko abenduaren 11n egin du eta gehiengoz onartu da Irizpena, UPV-EHUko ordezkariaren boto bereziarekin.

## 4/2009 IRIZPENA: Euskadiko gizarte esku-hartzearen eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektua.

Sarrera-data EGABn: 2009ko azaroaren 18a.

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenaren Batzordea.

Bilera: 2009ko abenduaren 9an. Batzordearen aurrean Alfonso Gurpegi Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaria agertu da.

Emaitza: Zerbitzu Teknikoek proposatutako Irizpenaren Aurreproiektutik abiatuta, Irizpen Proiektua egin da eta EGABren Osoko Bilkurak 2009ko abenduaren 11ko saioan landu du. Aho batez onartu da.

# 2.

# 2008KO TXOSTEN SOZIO-EKONOMIKOA EGITEA

Euskal Autonomia Erkidegoan 2008. urtean izan den Egoera Ekonomiko eta Sozialari buruzko Txostena aho batez onartu zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak 2009ko urriaren 23an egindako saioan. Hala, erakunde honi atxikitzen zaion legezko agindua bete zen, hain zuzen ere, urtero EAEn dagoen egoera ekonomiko eta sozialari buruz gogoetak adierazten dituen txostena egin Gobernuak eta Euskal Legebiltzarrak aztertzeko.

Lan-batzordea honako kideek osatu zuten: Raúl Arza jaunak (UGT), Antxon Tomasena jaunak (CCOO), Eduardo Aréchaga jaunak (CONFEBASK), Jaime Fernández Alcedo jaunak (CONFEBASK), Rafael Aranguren jaunak (Aurrezki Kutxak eta Erakunde Finantzarioak), Miren Garmendia andreak (Arrantza Erakundeak), Mikel de la Fuente jaunak (EHU) eta Fco. Javier Sanz jaunak (Kooperatibak), baita Felicísimo Ayastuy jaunak, Antón Borja jaunak,

Iñaki Barrenetxea jaunak, Mª Luz de la Cal andreak eta Aitor Bengoetxea jaunak ere EGABren adituen taldean sartutako kideak diren neurrian eta Arantza Unzurrunzaga andreak Idazkari Tekniko bezala.

Dokumentazio teknikoa Euskadiko EGABren Ikerketa eta Proiektuen Arduradunek, hau da, Leire Ozerin andreak eta Arantza Unzurrunzaga andreak egin zuten eta horri Batzordeko erakundeek, elkarteek eta adituek egindako ekarpenak erantsi zitzaizkion.

2008. urteari buruzko Txostena egiteko, Batzordeak lau lan-bilera egin zituen 2009ko urtarrilaren 28an, ekainaren 5ean, uztailaren 3an eta irailaren 23an. Azken datan onartu zen aho batez "2008ko EAEko Txosten Sozio-ekonomikoaren" proiektua.

Gure Autonomia Erkidegoaren egoera ekonomiko eta sozialari buruz Euskadiko EGABk egiten duen hamabigarren txostena da eta ekonomia- eta gizarte-errealitatearen daturik garrantzitsuenak aztertzen ditu. Gainera, Batzordea osatzen duten gizarte- eta ekonomia-eragileen diagnostiko partekatua eskaintzen du.

2008. urtean EAEn Ekonomia eta Gizarte Egoerari buruzko Txostenak, oro har, aurreko edizioetako edukiak mantendu ditu. "Laburpen eta Gogoeta Orokorrei" buruzko azken atalaz gain, Txostenaren edukiak hurrengo bloke handietan banatzen dira:

### I Kapitulua EAEn jarduera ekonomikoa garatzeko bitartekoak

1. Giza baliabideak EAEn.
    - Demografia eta inmigrazioa.
    - Hezkuntza eta hezkuntza-sustapena.
2. Produkzio-egitura eta berrikuntza EAEn.
    - Produkzio-egitura.
    - I+G+bren jarduerak eta IKT izenekoak.
3. Natur ingurunearen egoera EAEn.
4. Produkzio-azpiegiturak.

II Kapitulua: ekonomia EAEn.

1. Kanpoko ekonomia-ingurunea.
2. EAEko ekonomia-abagunea.
3. EAEko sektore publikoa.
4. Gizarte-ekonomia.
5. Lan-merkatua EAEn.
6. Prezioak, kostuak eta errentak.

III Kapitulua: bizi-kalitatea EAEn.

1. Talde interesgarri zehatzen (haurrak gizarte-zailtasunekin eta pertsonak desgaitasunekin) bizi-baldintzak .
2. Osasuna eta osasun-sistema.
3. Hirigintza eta etxebizitz.a
4. Astialdia, kultura eta kontsumoa.
5. Pobrezia eta gizarteak baztertzea.
6. Jarduera judizialaren eboluzioa EAEn.

IV Kapitulua: gizarte-babesa EAEn.

1. Langabeziarekiko babesa.
2. Gizarte-segurantzaren prestazioak.
3. Pobreziaren eta gizarteak baztertzearen kontrako neurriak.
4. EAEn gizarte-aurreikuspenerako sistema osagarriak.

V Kapitulua: garapenarekiko kooperazioa EAEn.

VI Kapitulua: legeria-jarduera EAEn.

# 3. KAPITULUA

## ERAKUNDE-JARDUERA

## URTARRILA

### >8a eta 9a

Lehendakaria Euskadiko CCOOren Kongresuan izan da Euskalduna jauregian.

### >21a

Idazkari Nagusia Miguel Lazpiur Confebaskeko lehendakariaren FORUM EUROPA hitzaldian egon da.

### >21a

Idazkari Nagusia Eusko Jaurlaritzako Aurrekontuen Zuzendariarekin bildu da 2009. urterako EGABren aurrekontuak aurkezteko.

## OTSAILA

### >9a

Juan José Ibarretxe lehendakariak FORUM EUROPAn parte hartu du. Idazkari Nagusia bertan izan da.

### >16a

Lehendakaria krisiaren aurrean Sormena eta Berrikuntzari buruz SPRIren hitzaldira joan da Guggenheim museora.

### >24a

EZE Enpresaburu eta Zuzendari Elkarteak urtero Enpresa Sariak entregatzen ditu Carlton hotelean. Lehendakaria joan da.

## MARTXOA

### >4a

Lehendakaria Pedro Luis Uriarte Innobasqueko zuzendariaren hitzaldira joan da FORUM EUROPARA.

### >9a eta 10a

Europako Batzordeak antolatuta, Lehendakariak garraioaren etorkizunari

buruzko hitzaldian parte hartu du Bruselan.

>10a

Lehendakariak Eusko Jaurlaritzako Bulegoa Bruselan bisitatu du.

>12a

EZEk Emakumezkoaren Nazioarteko eguna ospatu du cocktail batekin Abando hotelean. José Luis Ruiz lehendakaria bertan izan da.

>25a

Lehendakaria gonbidatuta joan da CCOOren metalaren kongresura Gasteizko Europa jauregian.

>26a

ELKARGIk XX. Enpresa Topaketa egin du honako izenburupean: "Krisitik irtengo al gara?" Donostiako Kursaal jauregian izan da. Lehendakaria topaketara joan da.

## APIRILA

>2a eta 3a

Lehendakariak eta Idazkari Nagusiak Haron (Errioxan) Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen 2009ko lehenengo topaketan parte hartu dute.

>29a

Euskadiko EGABren ordezkaritza bat Lehendakariarekin eta Idazkari Nagusiarekin Espainiako EGABren "hezkuntza-sistema eta giza kapitala" txostenaren aurkezpenean izan dira Gaztela eta Leongo EGABn, Valladoliden.

## MAIATZA

>7a

Lehendakaria Barakaldon izan da Euskadiko UGTk sustatutako Juan de los Toyos fundazioaren aurkezpenean. Bere Lehendakariak, Raúl Arzak, gonbidatu du.

>8a

ASLEk bere Batzar Nagusia egin du Gasteizko Europa Kongresu Jauregian. Lehendakaria eta Idazkari Nagusia joan dira.

>11a

Lehendakaria Arantza Quirogarekin bildu da. Euskal Legebiltzarreko Lehendakari bezala hautatu berria da. Euskadiko EGAB aurkeztu dio Legebiltzarraren kontsulta-erakunde bezala.

>21a

Lehendakaria Euskadiko UGTren 10. kongresuan izan da Gasteizko Europa Kongresuen Jauregian.

>27a

CEBEK erakundeak Batzar Nagusia – "Kudeaketa Krisia edo Baloreen Krisia" Enpresa Topaketa egin du Euskalduna jauregian eta Lehendakaria eta Idazkari Nagusia bertan izan dira.

>28a

Lehendakariaren bilera Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburuarekin Euskadiko EGABren egoitzan.

>28a

Idazkari Nagusia enpresaren egunean izan da. ADEGIk antolatu du Donostiako Miramongo Parke Teknologikoan.

## EKAINA

>3a

José Mª Vázquez Eguskiza CEBEK erakundeko lehendakariaren hitzaldia Forum Europan. Lehendakaria joango da.

>17a

Lehendakaria Arartekoaren 20 urteen ospakizunean izan da Gasteizko ARTIUM museoan.

>18a

Lehendakaria Kooperatibismoaren Munduko Egunaren ospakizunean izan da Bilboko Carlton hotelean.

>23a

Damaso Casado Euskadiko UGTko idazkari nagusiak FORUM EUROPAn parte hartu du. Lehendakaria eta Idazkari Nagusia joan dira.

>23a

Euskadiko EGABren Lehendakaria eta Akitaniako EEGABren Lehendakaria, bi batzordeen ordezkaritzaren buru izanik, Iñaki Arriola Etxebizitza eta Herrilanen Sailburuarekin bildu dira eta Garraioaren Transeuroparren Sarea Berraztertzeko Liburu Berdeari eta bi lurraldeen artean bidaiarien garraioari buruz txostenak aurkeztu dizkiote.



>29a

Unai Sordo Euskadiko CCOOren idazkari nagusiak FORUM EUROPA – Euskadi Tribunan parte hartu du. Hitzaldian Lehendakaria eta Idazkari Nagusia izan dira.

## UZTAILA

### >8a, 9a eta 10a

Idazkari Nagusia eta EGABren proiektuen hainbat arduradun "Egoera Sozio-ekonomikoa eta Lan Egoera Espainian" UIMPren ikastaroan izan dira Santanderren. Espainiako EGABk antolatu du.

### >16a

EGABren 2008ko aurrekontuaren kitapena eta ikuskaritza Andrés Araujo Sailburuordeari aurkeztu diote Lehendakariak eta Idazkari Nagusiak.

### >17a

Lehendakaria Patxi López lehendakariarekin bildu da Ajuria Enean.

### >29a

Josep Maria Rañé Kataluniako CTESren lehendakaria Lehendakariarekin eta Idazkari Nagusiarekin bildu da Euskadiko EGABri egindako erakunde-bisitan.

### >29a

Lehendakariak Bizkaiko Diputatu Nagusiak antolatutako Bizkaiko gizarteko ordezkarien harreran parte hartu du.

## IRAILA

### >10a

EAEANren lan-arloko aretoko lehendakariak, Garbiñe Biurrunek, kargua hartu du eta Lehendakaria bertan izan da.

### >11a

EHUko Udako Unibertsitateko Mintegia amaitu da Donostian honako gaiarekin: "Krisi orokorra. Ekonomia- eta gizarte-eredu berrirantz. Lehendakaria izan da bertan.

### >14a

Lehendakaria Carlos Aguirre Ekonomia eta Ogasun Sailburuarekin bildu da.

## URRIA

### >7a

Euskadiko EGABren sorreraren legearen 27. urteurrena ospatu da eta EGABren egoitza berria inauguratu da Bilbon, Gran Vía kaleko 81. zenbakian. Lehendakaria eta Euskal Legebiltzarreko Lehendakaria izan dira. Gainera, sindikatu- eta enpresa-erakundeetako lehendakariak eta idazkari nagusiak, euskal parlamentariak eta Asturiasko nahiz Kataluniako EGABren lehendakariak eta Batzordekideak hurbildu dira.

### >14a

Lehendakaria Euskal Legebiltzarreko Gizarte Politika, Lana eta Berdintasunaren Batzordearen aurrean agertu da.

### >15a

EGABk izan dezakeen berrikuntzari buruz Pablo Angulo Enplegu Sailburuordearekin bildu da Lehendakaria.

### >20a

Idazkari Nagusia Madrilgo Gizarte Ekonomiaren Bikaintasunari emandako Sarien VIII. ediziora joan da.

### >21a

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 20. urteurrena oroitzeko ekitaldia Villa Suso jauregian. Lehendakaria izan da bertan.

### >25a

Lehendakaria Ajuria Enea jauregira joan da Gernikako Estatutuaren 30. Urteurrena ospatzera.

### >28a

EKE Euskadiko Kontsumitzaileek Elkartearen 25. urteurrena ospatu da Bilboko Barceló hotelean eta Lehendakaria bertan izan da.

## AZAROA

### 10a

CEBEK erakundeak antolatutako jardunaldia “Enpresak berriz finantzatzea: berregituratze finantzario arrakastatsurako oinarriak” izenburupean Euskalduna jauregian. Lehendakaria eta Idazkari Nagusia joan dira.

### 10a

Idazkari Nagusia IZAITEk (Iraunkortasunaren aldeko enpresen elkartea) antolatutako jardunaldira joan da Deustuko liburutegian eta “Iraunkortasuna krisi-denboraldian” gaia landu da.

### 19a eta 20a

Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen II. Topaketa egin da Logroñon (Errioxan). Bertan Lehendakaria eta Idazkari Nagusia izan dira.

### 24a

Herri Kontuen Euskal Epaitegiko Lehendakariak, José Ignacio Martínez Churiaquek, FORUM EUROPA –Euskadi Tribunan parte hartu du. Bertan Lehendakaria izan da.

### 30a

Idazkari Nagusia FORUM EUROPAn Bizkaiko Diputatu Nagusiaren hitzaldira bertaratu da.

## ABENDUA

### 14a

Bernabé Unda Industria eta Berrikuntza Sailburuak FORUM EUROPAn esku hartu du. Euskadiko EGABren Lehendakaria eta Idazkari Nagusia izan dira.

# 4. KAPITULUA

## KANPOKO KOOPERAZIOA

# 1.

# AKITANIAKO EEGABREKIN BI ALDEEN ARTEKO KOOPERAZIOA

Euskadiko EGABk bi aldeen arteko kooperazio-harremana du Conseil Economique et Social Régional d´Aquitaine izenekoarekin; horri esker, elkarrizketa etengabea mantentzen dute, baita EAEkiko eta Akitaniarekiko interes komuneko gaiei buruz ikuspuntu bateratua garatu ere.

2004. urtean hasi zen EGABen artean lan-batzordea eratu zenean; bi lurraldeen artean hurbiltasuneko turismoa bultzatu zen.

2007. urtean jarduera berriei ekin zieten batera eta eskualdeko, estatuko eta EEko garraio-politikak konpondu eta hobetzeko konponbide-proposamenak formulatzen hasi ziren. Arazoan identifikatu nahi dira hurrengo arloetan: lineak, zerbitzuak, azpiegiturak, operatibitatea euren artean eta intermodalitatea. Iden-

tifikatutako problematiken ebazpen-proposamenak definituko dira.

2009. urtean bidaiarien hurbiltasuneko garraioari buruzko dokumentua aurreratu zen. Proposamenen barruan trenbidea, autobusaren linea erregularrak eta errepideko trafikoa bideratzea daude.

Euskadiko EGABk eta Akitaniako EEGABk Europako Batzordeak Garraioaren Sare Transeuroparrak berraztertzeko (RTE-T) irekitako kontsulta-prozesuan parte hartu dute. Gaiari buruzko liburu berdeari ekarpen komuna egin diote.

Bi landak Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailburuari eta Jean-Louis Carrère Lehendakariorde eta Akitaniako Eskualdeko Kontseiluaren Garraio-arduradunari aurkeztu zitzaizkien. Halaber, bi eskualdeetako komunikabideetan azaldu zuten beren lehendakariek: Jose Luis Ruiz jaunak eta Luc Paboeuf jaunak. Azkenik, berri emateko orduan, bi erakundeetako lantaldeen kideak ez ziren alde batera utzi.

Lanez arduratu zen Euskadiko EGABren lantaldeak izandako barruko bilerez gain, Euskadiko EGABren eta Akitaniako EEGABren ordezkariek osatutako Lan Batzorde Bateratua Donostian bildu da 2009ko martxoaren hamarrean.

### Donostia, 2009ko martxoaren 30 eta 31

Bileran bidaiarien hurbiltasuneko garraioa landu zen eta bidaiarien hurbiltasuneko garraioari buruzko dokumentuari azken ukituak eman zitzaizkion.

Era berean, Euskadi Akitania Plataforma Logistikoaren Zuzendari Nagusiaren entzunaldi bat izan zen helburu eta jarduerei nahiz Aquitaine Euskadi Transnetwork proiektuari buruz. Bigarren egunean Ormaiztegin Autocares Irizar enpresaren planta bisitatu zen.

# SARE TRANSNAZIONAL ATLANTIKOA

Euskadiko EGAB Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen Plataformaren eta antzeko erakundeen kide da Espazio Atlantikoaren eskualdeetan. Hori Sare Transnazional Atlantikoa deritza. Bere helburua eskualdeen artean kooperazio-proiektuak eta -politikak proposatzea da eskualde atlantikoen gizarte- eta lurralde-lehiakortasuna eta –kohesioa sendotzeko. Aldi berean, interes komuna duten gaiak ikertu eta aztertzen dira, Atlantikoan atxikian badaude eta, ondoren, zabaldu eta erabakitzeko gaitasuna duten erakundeetaraino, bereziki, Europako Elkarteraino iritsarazten dira.

Sarean honako herrialdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeek parte hartzen dute: Kantabria, Galizia, Kanariak, Ceuta, Akitania, Poitou-Charentes, Bretainia, Pays-de-la-Loire, Bretainia, Limousin eta Erdialdeko Eskualdea eta Soldadura eta Qualidade institutua, ISQ.

2009. urtean lan-gai bezala, itsasoko energia berriztagarriak landu dira; bere potentziala oso-osorik garatzeko zailtasun sozio-ekonomiko eta juridiko-administratiboak landu dira. Itsas bioteknologia aztertu da ere bai, farmazian, elikaduran eta kosmetikan aplikatzeko, besteak beste.

Uztailean RTAren gobernua aldatu da. Pablo Coto, Kantabriako EGABko lehendakaria, sartu da Alain Even Bretainiako EEGABren lehendakariaren ordez. Joao Paulo Duarte Lisboako ISQ erakundekoak 1. lehendakariordetza hartu du Pablo Cotoren ordez eta Luc Paboeuf Akitaniako EEGABren lehendakaria bigarren lehendakariorde izendatu dute. Lehen Joao Paulo Duarteren esku zegoen.

## RTAren bilerak 2009an

RTAren erabakitze-organo gorenak dira, bai Batzorde Eragilea, Bureau izenekoa, bai Osoko Bilkura, Orientazioen Batzordea eta hurrengo bilerak izango dituzte:

### Madrilen, 2009ko martxoaren 9an

RTAren Bureauren bilera. Uztailaren 9ko Orientazioen Batzordea prestatu zuen eta agendan sartu beharreko gaiak zehaztu zituen.

### Las Palmasen, 2009ko uztailaren 9an eta 10ean

*Orientazio Batzordearen bilera*

RTAak erabaki eta orientazio estrategikoa eskaintzeko organo nagusiak itsasoko energia berriztagarrien lantaldeak egindako lanaren aurrerapena aztertu zuen, baita lan-plana eta –egutegia ere. Oso positiboki baloratu zuen gaiari buruz egindako ikerketa-bisita. Euskadiko EGABk antolatu zuen eta lantalde bakoitza Orcadas uharteetan izan zen.

RTAren hurrengo mintegian landu beharreko gaiei buruz eztabaidatu zuen, etorkizunean eztabaidatzeko xedez, Europako gaietan EGABko eskualde-agintaritza bakoitzetik estrategiei buruz datorren informazioa biltzeko oinarriak berriz bideratu ziren eta Arku Atlantikoaren Batzordean jarduera duten RTAren jarduerak egituratzeari buruzko funtzionamendua aztertu zuen.

Arestian aipatutako kargu-aldaketa izan zen.

Era berean, Bureaua Frantziako eta Espainiako eskualdeetako ordezkari osagarriekin zabaltzeko aukera aztertu zen.

### Madrilen, 2009ko azaroaren 16an

RTAren *Bureauaren bilera.* Bureauak bere saioa 2010ean egingo den orientazioen batzordea prestatzen eman zuen eta gai-zerrenda osatuko duten gaiak aztertu ziren.

### Itsasoko Energia Berriztagarriei buruzko Lantaldea

Taldea Orientazio Batzordeak eratu zuen 2008an eta lanei aurtengo ekainean ekin zieten. Lanen helburua eskualde atlantikoan itsasoko energia berriztagarrien garapenarekiko oztopoak identifikatzea da ikuspuntu juridikotik, administratibotik, ekonomikotik, sozialetik eta ingurumenekotik. Gainera, horiek gainditzen laguntzeko gomendioak definitu nahi dira.

Euskadiko EGAB ikerketaren txostengile izendatu zen eta Akitaniako EGABren laguntza izan zuen. 2009. urtean 3 bilera egin ditu: Lisboan martxoan, Bilbon irailean eta bideokonferentziaren bidez azaroan. Ikerketaren xede den arloan adituek parte hartu dute.

Ikerketa-bisita Eskozian Orcadas uharteetara. Uztailaren 2an eta

3an toki hau bisitatu zen. Itsas baliabide energetiko garrantzitsuak ditu, ikerketa, prestakuntza eta laguntzeko azpiegitura teknikoen sareaz gain. Gainera, enpresak daude arloan teknologia ikertu eta garatzeko. Nolanahi ere, ezagutzaren abangoardian daude.  European Marine Energy Center (EMEC) bisitatu zen.

Lantaldean Euskadiko EGABren aldetik honakoek parte hartzen dute: proiektuen arduradunak, Arantza López de Munain Zuluetak, eta Ignacio Barrenechea eta Roberto Bermejo d taldeko adituek.



# 2.

# ARKU ATLANTIKOA BATZORDEA

Euskadiko EGABk Arku Atlantikoa Batzordearen Batzar Nagusietan parte hartu du. Santanderren egin da maiatzaren 14an eta 15ean eta Goteborgen irailaren 30ean. Arku Atlantikorako estrategia abian jarri eta bultzatzea landu zen, Baltiko itsasorako Europako Batzordeak egin zuen bezala, garraioaren, itsas segurtasunaren, ingurumenaren, ikerketaren, berrikuntzaren, energiaren eta arrantzaren arloan zona geografiko horretako erronkak modu integratuak aurre egiteko.

2008az gero, Arku Atlantikoa Batzordearen eta RTAren artean kooperazioa izateko formulak egituratu dira; helburua eragile atlantiko desberdinen artean sarean lanak bultzatzea da. RTA Arku Atlantikoa Batzordearen Koordinazio Batzordean eta Lantaldeetan parte hartzeko erantsi da. Horretan lagundu du Euskadiko EGABren Lehendakariak, Jose Luis Ruiz jaunak, parte har tzea, RTAren kide diren beste EGABko Lehendakariekin batera.

Euskadiko EGABk, RTAren izenean, Arku Atlantikoa Batzordearen Garraio Lantaldeak Nantesen martxoaren 26an, Poitiersen uztailaren 1ean eta Gijonen azaroaren 6an egindako bileretan parte hartu du. Bilerei esker, bazkide diren eskualdeetan garraioaren arloan dauden politikak eta proiektuak ezagutu dira, garraioaren arloan gaurkotasun komunitarioa berraztertu da eta korridore atlantikoan plataforma logistikoen sarearen eraginkortasuna hobetzeko kooperazioko Europako proiektua prestatu da. Aldi berean, Sare Transeuroparrak berraztertzeko Liburu Berdearen inguruan Europako Batzordeak antolatutako kontsultan Arku Atlantikoa Batzordeak laguntzeko eztabaida-gunea eratu da. Euskadiko EGABk eraginkortasunez parte hartu du.

## EUROPAKO ESKUALDE PERIFERIKO ITSASTARREN KONFERENTZIA, CRPM

Europako 157 eskualde itsastarrek eratutako elkartea, Europako Elkartearen garapen orekatua sustatzera bideratua eskualde horietako aktibo komunei balioa emanez. Helburua Europako integrazioaren prozesuan eskualdeen inplikazioa lortzea da, baita Europako integrazioaren testuinguruan Europako agintariak sentsibilizatzea eskualde itsastarrek eta periferikoek dituzten berezitasun eta beharrei buruz ere.

Sei batzorde geografikotan antolatu da eta bat Arku Atlantikoa Batzordea da. Horren legezko kideak dira atxikitako eskualdeetako agintarien ordezkariak; eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak behatzaile bezala agertu dira.

Euskadiko EGABk, bere Lehendakariarekin, CRPMren Batzar Nagusian parte hartu zuen Göteborgen urriaren 1ean eta 2an eta eztabaidak krisi ekonomikoaren eta irtenbideak bilatzeko orduan eskualdeen zereginaren ingurukoak izan ziren. Halaber, beste gai hauek landu ziren: Europako eskualde periferiko eta itsastarren inguruan sortutako erronkak aldaketa klimatikoari dagokionez, 2013tik urrunago Europako lurralde-kooperazioaren eta eskualde-politikaren negoziazioak hastea eta Arrantza Politika Komun berria konfiguratzea.

Euskadiko EGABren proiektuen arduradunek CRPMren jardueretan parte hartu dute, hala nola Itsasoko Energia Berriztagarriei buruzko Mintegia Cornwallen urriaren 22 eta 23an, (Arantza López de Muniain izan da) eta egungo krisi ekonomikoaren aurrean konponbideak bilatzeko Europako eskualdeen laguntzari buruzko Mintegia Marseillan azaroaren 20an (Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga izan dira).

# 3.

# EUROPAKO BESTE EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEKIN KOOPERAZIOA

Apirilaren 1ean Euskadiko EGABk Ria Van Peer andrea, Flandeseko (Belgika) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko nazioarteko harremanen arduraduna, hartu zuen, Euskadiko EGABk kooperazio-harremana baitu. Topaketaren helburua EAEn gizarte-hitzarmenari buruz informazio-saioa izatea suertatu zen. Era berean, Lan Harremanetako Batzordearen ordezkariek parte hartu zuten.

## 2007-2013RAKO FRANTZIA-ESPAINIA-ANDORRA LURRALDE KOOPERAZIO PROGRAMA, POCTEFA

Euskadiko EGAB 2007-2013rako Frantzia-Espainia-Andorra Kooperazio Programaren Jarraipen Batzordearen kide da, 2007-2013rako Espainia-Frantzia-Andorra mugaz gaindiko eremuan Lurralde Kooperazioren Programa Eragileak eta Jarraipen Ba tzordearen barruko Araudiak xedatutakoaren babesean. Berariaz arautzen dute kontsulta-izaerarekin honako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen partaidetza: Euskadi, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Errioxa, Akitania, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussillon. Gainera, batzorde horren barruan sartuak daude Pirinioetako Lan Komunitatea Kudeaketa Agintaritza bezala, Europako Batzordea kontsulta-erakunde bezala, Frantzia eta Espainiako agintaritzen ordezkaritza paritarioa (Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Aragoi, Katalunia eta Errioxa barne), Estatuko Administrazio Orokorra eta Ingurumen Agintaritzen Sarea. Frantziaren aldetik: Akitania, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussilloneko Eskualde Batzordeak, eskualde-prefekturak, Ariège, Haute-Garonne, Hautes-Pyrénées, Pyrénées-Atlantiques eta Pyrénées-Orientaleseko Kontseilu Orokorrak eta beren sail-prefekturak, ingurumen-agintaritza eta Commissariat de Massif à l´Aménagement des Pyrénées. Bere funtzioak, nagusiki, programaren helburuak lortzen direla aztertzea da; horrez gain, batera finantzatzeko aurkeztutako proiektuak hautatzeko irizpideak aztertu eta onartzen dira, egin ondoren, emaitzan aztertzen dira eta programaren berraztertze-proposamenak egiten dira.

Hala, Euskadiko EGABk jarraipen-batzordearen bilera guztietan parte hartu du:

Jacan, 2009ko ekainaren 15ean. Gai nagusia: lehenengo deialdiaren ebazpenaren ondoren, programazioaren aurrerapen-egoeraren analisia, konpromiso-mailaren arabera eta ardatzen eta lurraldeen banaketaren arabera. Era berean, programaren kudeaketaren dokumentazioarekin eta aurrerakin finantzarioen

ordainketa-egoerarekin zerikusia zuten hainbat alderdi landu ziren.

Tarascon sur Ariègen, 2009ko urriaren 28an. Programak batera finantzatzeko aurkeztutako proiektuen hautatze-prozesuan hobekuntzak aztertzera bideratutako bilera. Halaber, programaren funtsen esleipen-egoerari, POCTEFAren bigarren deialdirako egutegiari eta programaren laguntza teknikoa banatzeko metodoari buruz eztabaidatu zen.

# 5. KAPITULUA

## BITARTEKO MATERIALEN ETA GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

# 1.

# 2009KO AURREKONTUA

2009rako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Gastuen Aurrekontuak 2.835.003,51 €-ko hornidura izan zuen eta zenbatekoa 1.846.100,00€-n EAEko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu zen; 923.903,51 €-n aurreko ekitaldietako soberakinen kargura eta 65.000,00 €-n diru-sarrera finantzarioen kargura.

Gastuen eta diru-sarreren ohizko aurrekontua 2009. urterako hurrengo kapitulu handitan banatu zen:

| | AURREKONTUAN SARTUTAKOA | BETETAKOA | MAILA |
|---|---|---|---|
| 2009KO GASTUAK | 2.835.003,51 | 2.624.155,93 | 92,56% |
| I. kapitulua.- Langileen gastuak | 840.446,75 | 739.137,28 | 87,95% |
| II. kapitulua.- Funtzionamenduaren gastuak | 928.207,72 | 870.124,90 | 93,74% |
| III. kapitulua.- Gastu finantzarioak | 60,00 | 0,00 | 0,00% |
| IV. kapitulua.- Transf. eta Diru-lagun. Gastu Arrunta. Kideen Transferentzia | 244.289,04 | 197.034,20 | 80,66% |
| VI. kapitulua.- Inbertsioak | 822.000,00 | 817.859,55 | 99,50% |
| 2009KO DIRU-SARRERAK | 2.835.003,51 | 2.624.155,93 | 92,56% |
| IV. kapitulua.- Transf. eta diru-lagun. Gastu arrunta | 1.846.100,00 | 1.846.092,00 | 100,00% |
| Eusko Jaurlaritza | 1.846.100,00 | 1.846.092,00 | 100,00% |
| V. kapitulua.- Ondarearen diru-sarrerak. Diru-sarrera finantzarioak | 65.000,00 | 26.436,52 | 40,67% |
| Aurreko ekitaldietako soberakinak | 923.903,51 | 751.627,41 | 81,35% |

Aurrekontuaren kitapenaren datuak 2009ko ekitaldiko kitapenari dagozkio eta argitaratzen den datan urteko ikuskaritzaren zain daude.

Gastuen kitapenaren eboluzio historikotik ondoriozta daiteke erakundeak aurrera egin duela eta finkatu egin dela eta bere jarduera eta kontsulta-funtzioa biziagotu egin dela:

Evolución Ejecución Gastos CES Vasco




Evolución Ejecución Gastos CES Vasco por Capítulos



# 2.

# LANGILEAK BATZORDEAREN ZERBITZURA

Euskadiko EGABren zerbitzura dauden langileak, Lehendakari eta Idazkari Nagusiaz gain, bederatzi pertsonek osatu dute lan-arlo desberdinetan banatuak.

### Ikerketak eta Proiektuak:

Arantza López de Munain
Arantza Unzurrunzaga
Leire Ozerin

### Administrazioa eta Zerbitzuak:

Gabriel Muro

### Zuzendaritza-idazkaritza:

Arantza Miñambres

### Zerbitzu Orokorrak, Administrazioa eta Dokumentazioa:

Beatriz Cerezo
Aitor Crespo
Begoña Etxebarria
Ane Torres

# 6. KAPITULUA

## KOMUNIKAZIOA, DOKUMENTAZIOA ETA ARGITALPENAK

# 1.

# KOMUNIKAZIOA

## PRENTSA-BERRIEN EGUNEKO DOSSIERRA

Egunero posta elektronikoz banatzen da prentsa-berrien dossier digitala eta bertan gizarte- eta lan-berriak hautatzen dira. Dossierrak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen hemeroteka osatzen du.

## URTEKO PRENTSA-DOSSIERRA

Batzordearen jarduerari buruz prentsan, irratian eta telebistan zabaldutako informazio guztiak biltzen ditu. Edukiarekin urtero Euskadiko EGABk komunikabideetan izandako agerraldien dossier kronologikoa egiten da.

## EUSKADIKO EGABREN INFORMAZIO-BULETINA

2008ko abenduan Euskadiko EGABren bi hilez behingo Informazio Buletina sortu zen. EGABren lana zabaltzeko tresna da eta erakunde honen iritzia ahalik eta pertsona gehienei iristeko ibilgailu garrantzitsua da. 2.000 ale argitaratzen dira eta 2009. urtean bertsio digitala izan du. Abagunearen adierazle eta berri nagusiak ditu, baita Batzordearen jardueraren laburpenak ere. Era berean, Europako kooperazioaren arloan lana aipatzen da. Hiru bide erabiliz zabaltzen da: posta arrunta, e-maila eta web orria.



# EGABREN TRIBUNA

2009ko martxoaren 30ean Euskadiko EGABren Lehenengo Tribuna egin zen: adituen taldeak gaurkotasunaren gai ekonomiko eta sozialak lantzen dituzte hitzaldien sorta batean. Tribuna eztabaida- eta adostasun-gunea sortzeko helburuz eratu zen; bi hilez behin mahaiaren gainean iritzi desberdinak jartzen dira aurrera egin eta erabaki egokiak hartzen laguntzeko. Eztabaida-gune honetan ideia eta proposamen desberdinak sartzen dira une honetan krisi larrian sartuta dagoen gizartearen arazoei modu adostuan irteerak bilatzen laguntzeko. Tribunaren hedapena txosten bakoitza oso-osorik argitaratuz osatzen da. 2009. urtean lehenengo lau hitzaldiak argitaratu dira, nahiz eta guztira bost egin.



## 2009ko martxoaren 30a. Bilbo

Julio Rodríguez. UCM-n Zientzia Ekonomikoetan Doktorea.

'Higiezinen krisia, krisi ekonomikoa eta ikuspuntuak'. Estatuko Goi Mailako Estatistikoak eta Hipoteka Bankuaren Lehendakari ohiak ibilbide bat egin zuen azken urteetan Espainiako ekonomiak izandako eboluzioan zhear: eraikuntza gailurrean zegoenetik egungo krisira arte. Espainiaren kasuan zuzenean lotzen da higiezinen porrotarekin.




## 2009ko maiatzaren 18a. Bilbo

José María López. Automobilgintzaren Ikerketa Unibertsitarioko Institutuaren Zuzendariordetza (INSIA)

'Automobilgintzaren sektorea: etorkizuneko erronkak eta erantzunak ener-

gia-arazoarekiko'. José María Lópezek automobilgintzaren sektoreak aurre egin behar dizkion energia- eta ingurumen-arazoak landu zituen eta industria garatzen ari den irtenbide teknologiko nagusiak errepasatu zituen. INSIAren Zuzendariordeak planteatutakoaren arabera, CO2-ren mailan eta, beraz, kontsumoan aurrez ikusten den murrizketara iristeko, autoen munduko parkeak ziurrenik gora egingo duen eszenatokian, jada probatuak dauden teknologiak integratu beharko dira, hala nola motor elektrikoak, ibilgailu hibridoak, erregai alternatiboak eta, etorkizunean, erregaipila. Industriak aldaketa teknologikoa onartu beharko du lehiakorra izateko.




2009ko ekainaren 15a. Bilbo

Maravillas Rojo. Enplegu Idazkaria.

'Enpleguaren Zerbitzu Publikoak krisiaren aurrean'. Maravillas Rojok, Enpleguaren Idazkari Nagusiak, bere esku-hartzea Enpleguaren Zerbitzu Publikoetan (EZP) oinarritu zuen egungo testuinguruaren barruan: "enpleguaren paradigmak aldatzen dira eta krisiak arintasun handiagoz jarduten behartzen du". Rojok azaldutakoaren arabera, geroraezina da Enpleguaren Zerbitzu Publikoen Sarea hobetzea, edozein langilek edozein unetan eta edozein tokitik hobekuntza-prozesuan ekimena izateko, arreta pertsonala kalitate handiko laguntza pertsonaletan oinarritzeko eta laguntza- eta babes-sare aktiboa egituratzeko. Izan ere, pertsona okupatuen konfiantza izan behar du.




## 2009ko urriaren 16a. Bilbo

Manuel Pimentel. Lan eta Gizarte Gaietako ministro ohia.

'ETEak eta Enplegua krisialdian'. Manuel Pimentelek, Lan eta Gizarte Arazoetako ministro ohiak, bere esku-hartzea ETEen egoeran oinarritu zuen eta egungo testuinguruan kokatu zuen: "bai langileak, bai enpresaburuak gaizki pasatzen ari dira". Adituak langabezia krisiaren alderik garrantzena dela onartu zuen, baina ez bakarra, milaka enpresaburu txiki eta autonomo sufritzen ari baita ere bai.



## 2009ko azaroaren 26a. Bilbo

Ignacio Zubiri. Euskal Herriko Unibertsitateko Herri Ogasun Sailaren Zuzendaria eta Katedraduna.

'Krisia, fiskalitatea eta bitartekoen banaketa Euskadin'. Ignacio Zubirik, Euskal Herriko Unibertsitatean Ogasun Katedradunak, bere partaidetza hiru gaitan oinarritu zuen: Euskadin zergen eboluzio berria eta Espainiako gainerakoekin eta beste herrialdeetakoekin nola alderatzen diren; berritzeko neurrien egokitasuna eta etorkizunean hartu beharko liratekeen neurriak; eta Ekarpenen Legeak hobariei, zerga-maila egokia zehazteari eta kudeaketa eraginkorra egiteari eragiten diena.

## EUSKADIKO EGABREN JARDUERA KOMUNIKABIDEETAN

Batzordeak egiten dituen Ikerketak, Irizpenak eta Txostenak, baita interes publikoa duten jarduerak (jardunaldiak, mintegiak, agerraldiak, topaketak beste erakundeekin…) ere komunikabideetara bidaltzen dira. Halaber, Euskadiko ingurune sozio-ekonomikoan iritzi-buruei bidaltzen zaizkie.

Erabakiak edo irizpenak direnean, prentsa-oharra egiten da eta komunikabideei bidaltzen zaie. Eduki guztiak eskura daude interneten Euskadiko EGABren web orrian, “Notas de Prensa-Prentsa Oharrak” atalean.

Idatzizko eta ikus-entzunezkoen komunikabideetan EGABk eta bere jarduerek 201 baino gehiagotan sortu zituzten berriak: 41 irratian, 15 telebistan eta 145 idatzizko prentsan.

Zabaldu nahi diren edukiei emandako garrantziaren arabera, kazetariak bertan izateko deialdia egiten da. 2009. urtean 13 prentsaurreko egin ziren eta 20 prentsa-ohar bidali ziren.

## 2009. URTEAN EGINDAKO PRENTSAURREKOAK

- 2009ko urtarrilaren 27a. Bilbo

  2009. ekitaldian EGABren jarduera aurkezteko prentsaurrekoa. Erakundearen jarduera gehitzea aurrez ikusia dago energia, hezkuntza eta demografiari buruzko ekimen propioekin.

- 2009ko martxoaren 30a. Bilbo

  Tribunaren hitzaldi-zikloari ekiteko prentsaurrekoa. “Higiezinen krisia, krisi ekonomikoa eta ikuspuntuak” izenburua duen ponentziarekin hasiko da eta Julio Rodríguez ekonomilaria izango da.

- 2009ko ekainaren 5a. Bilbo

  Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak prentsaurrekoan aurkeztu du 2008ko Jardueren Txostena. Bertan joan den ekitaldian EGABk izandako jarduera jasotzen da. José Luis Ruiz lehendakariak 2008an garatutako lana eta erakundean gertatutako guztia baloratu du.

- 2009ko ekainaren 15a. Bilbo

  Euskadiko EGABren Tribunarekin jarraitzeko prentsaurrekoa honako ponetziarekin: "Enpleguaren Zerbitzu Publikoak krisiaren aurrean"; arduraduna: Maravillas Rojo, Enpleguaren Idazkari Nagusia.

- 2009ko ekainaren 23a. Gasteiz

  Mugan dagoen garraio-kolapsoaren aurrean hainbat proposamen alternatibo azaltzeko Euskadiko EGABren eta Akitaniako EEGABren prentsaurreko bateratua.

- 2009ko uztailaren 17a. Gasteiz

  José Luis Ruiz Euskadiko EGABren lehendakariaren eta Eus-



ko Jaurlaritzako Lehendakariaren arteko topaketa ofizialari buruzko prentsaurrekoa.

- 2009ko uztailaren 24a. Bilbo

  Euskadiko EGABren Ohiz Kanpoko Osoko Bilkuran Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Arazoetako Sailburuaren agerraldirako prentsaurrekoa.

- 2009ko irailaren 28a. Bilbo

  Itsasoko energia berriztagarrien taldea. RTA. Arku Atlantikoaren Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak eta ISQ (Euskadiko EGABk parte hartzen du). Horiek guztiek prentsaurrekoan aurkeztu dituzte itsas energien potentzialari buruzko ikerketaren lehenengo ondorioak.

- 2009ko urriaren 7a. Bilbo

  Deialdia komunikabideei Euskadiko EGABren 25. urteurrenera. Bertan Bilbon Batzordearen egoitza berriaren instalazioak inauguratuko dira. Ekitaldian Patxi López lehendakaria eta Arantza Quiroga Euskal Legebiltzarreko lehendakaria izan dira.



- 2009ko urriaren 6a. Bilbo

  EGABk antolatutako konferentzien zikloaren laugarren edizioa aurkezteko prentsaurrekoa honako ponentziarekin: “ETEak eta enplegua krisialdian”; hizlaria: Manuel Pimentel.

- 2009ko urriaren 30a. Bilbo

  2008ko Txosten Sozio-ekonomikoa aurkezteko prentsaurrekoa.

- 2009ko azaroaren 26a. Bilbo

  Ignacio Zufiriaren ponentziarako prentsaurrekoa. Izenburua: “Krisia, fiskalitatea eta bitartekoen banaketa Euskadin”.

- 2009ko abenduaren 18a. Bilbo

  Prentsaurreko honetan José Luis Ruiz Euskadiko EGABren lehendakariak komunikabideei urtearen azkeneko hilabeteetan ekonomia- eta gizarte-abagunearen datuak eskaintzen dizkie. Gainera, Batzordearen Osoko Bilkurak onartutako azken bi irizpenei buruzko informazioa azaldu du.



## PRENTSA-OHARRAK

2009. urtean komunikabideei aipatzen diren datetan hogei prentsa-ohar bidali zitzaizkien EGABren lanak eta jarduerak zabaltzeko:

- 09/01/27: Azken hilabeteetan EGABren jarduerari dagokion balantzea eta erakundea dinamizatzeko hainbat ekimen berri aurkezteko prentsa-oharra.
- 09/03/30: EGABren lehenengo Tribunak Julio Rodríguezez hitzaldiari buruzko prentsa-oharra. Izenburua: 'higiezinen krisia, krisi ekonomikoa eta ikuspuntuak'.
- 09/05/11: legealdi berrirako lankidetza eskaintzeko Euskal Legebiltzarreko Lehendakariaren eta EGABren Lehendakariaren bilerari buruzko prentsa-oharra.
- 09/05/18: EGABren bigarren Tribunak José María Lópezen hitzaldiari buruzko prentsa-oharra. Izenburua: 'Automobilgintzaren sektorea: etorkizuneko erronkak eta energia-arazoarekiko erantzunak'.
- 09/05/29: Akitaniako EEGABrekin batera egina, RTE-T Berraztertzeko Liburu Berdearen Irizpenari buruzko prentsa-oharra.
- 09/06/05: 2008ko Jarduera Txostena aurkezteko prentsa-oharra.
- 09/06/15: EGABren hirugarren Tribunari buruzko prentsa-oharra. Izenburua: 'Enpleguaren Zerbitzu Publikoak krisiaren aurrean'; Maravillas Rojo, Enpleguaren Idazkari Nagusia, izan da.
- 09/06/23: Euskadiko eta Akitaniako EGABren ordezkarien eta

Iñaki Arriola Garraio Sailburuaren artean izandako topaketari buruzko prentsa-oharra. Bi ikerketa aurkeztu zaizkio Euskadi eta Akitaniaren arteko merkantzia eta bidaiarien garraioari buruz. Ikerketak batera egin dira eta Europako Batzordeak idatzita, “Garraioaren Sare Transeuroparren Politika Berraztertzeko Liburu Berdearekiko” EGABen erantzuna dute.

- 09/07/17: Euskadiko EGABren ordezkari batek Patxi López lehendakariarekin izandako topaketa ofizialaren prentsa-oharra.

- 09/07/24: EGABren Ohiz Kanpoko Osoko Bilkuraren aurrean Gemma Zabaleta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburuaren agerraldiari buruzko prentsa-oharra. Esku-hartze irekia komunikabideen aurrean.

- 09/09/03: Euskadiko EGABk eta Akitaniako EEGABk Akitaniako Kontseilu Nagusiko Lehendakariordearekin izandako bilerari buruzko prentsa-oharra. Mugan bidaiarien garraioaren eta sare transeuroparrean merkantzien garraioaren inguruko proposamenak aurkeztu zaizkio.

- 09/09/23: EGABri aldez aurretik kontsultatu gabe, Premiazko Aurrekontu Neurrien Legea onartzeari buruz José Luis Ruiz EGABren lehendakariak egindako kritikaren prentsa-oharra.

- 09/10/07: Lehendakaria eta Legebiltzarreko Lehendakaria buru izanik, Euskadiko EGABren 25. urteurrenari buruzko prentsa-oharra.

- 09/10/14: Euskal Legebiltzarraren aurrean José Luis Ruiz EGABren lehendakariaren agerraldiaren buruzko prentsa-oharra.

- 09/10/16: EGABren laugarren Tribunan Manuel Pimentel Lan eta Gizarte Arazoetako ministro ohiaren ponentziari buruzko prentsa-oharra.

- 09/10/23: Haur eta Nerabeen Arreta eta Babesaren Legea aldatzeko EGABren irizpenari buruzko prentsa-oharra.

- 09/10/30: 2008ko Txosten Sozio-ekonomikoa aurkezteko prentsa-oharra.

- 09/11/18: Lan Merkatuan Aztertzeko laguntzei buruz EGABren Irizpenari buruzko prentsa-oharra.

- 09/11/26: EGABren bosgarren Tribunan Ignacio Zubiri EHUko Ogasun Publikoaren Saileko zuzendari eta katedradunaren hitzaldiari buruzko prentsa-oharra.

- 09/12/18: Iangabetuak kontratatzeko laguntzaren EGABren Irizpenari eta hirugarren sektorearekiko diru-laguntzak arautzeko Dekretu Proiektuaren Irizpenari buruzko prentsa-oharra.

## WEB ORRIA

Argazkiak eguneratu dira eta editatu diren argitalpen desberdinetara sartzeko aukera ematen da.



# 2.
# DOKUMENTAZIOA

Dokumentazio Zerbitzuaren helburua oinarrizko dokumentazio-azpiegitura kudeatzea da, Batzordeko kideek eta langileek lanak (irizpenak, memoriak, ikerketak, txostenak…) egiteko dokumentu-bitarteko interesgarriak ezagut eta lor ditzaten.

Xede horrez hurrengo zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Dokumentuak lortzea.
- Dokumentu-funtsak antolatu eta zaintzea.
- Liburutegiko berriekin buletina astero egin e-mailez banatzea.
- Bibliografia eta dokumentuak neurrira bilatzea.
- Gai interesgarriei buruz txosten monografikoak egitea.
- Kanpoko buletin elektroniko adituak (gobernu-kontseiluaren erabakiak, legebiltzarraren gaurkotasuna, SIIS, etab.) banatzea.

## IKUSTE-ARTXIBOA

Batzordeak argazki digitalen artxiboa du Batzordeak egindako ekitaldi eta bilera garrantzitsuenekin. Argazkiak noizean behin aldizkariei eta egunkariei eskaintzen zaizkie, lana errazteko.

## ARGITALPENAK

2009. urtean honakoak editatu eta banatu ziren:

- 2008ko Jardueren Txostena. Edizio elebiduna, 750 ale.
- 2008ko txosten sozio-ekonomikoa
  - Gaztelaniaz inprimatutako edizioa, 1.000 ale.
  - Euskaraz inprimatutako edizioa, 500 ale.
- 2008ko txosten sozio-ekonomikoaren laburpena eta gogoetak. Edizio elebiduna. 500 ale.
- 4 irizpideen edizio elebiduna:
  - 1etik 4ra bitarteko irizpenak: 600 aleko tirada.
- EGABren Tribuna. Edizio elebiduna.
  - Julio Rodríguez. "Higiezinen krisia, krisi ekonomiko eta ikuspuntuak". 1.500 aleko tirada.
  - José María López. 'Automobilgintzaren sektorea: etorkizuneko erronkak eta energia-arazoarekiko erantzunak'. 1.500 aleko tirada.
  - Maravillas Rojo. 'Enpleguaren Zerbitzu Publikoak krisiaren aurrean'. 1.300 aleko tirada.
  - Manuel Pimentel. 'ETEak eta Enplegua krisialdian'. 1.300 aleko tirada.
- Akitaniako EEGABrekin batera egindako bi ikerketen hiru hizkuntzetako edizioa:

- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitaniako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen ekarpena RTE-T Berraztertzeko Liburu Berdeari buruz irekitako kontsultaren esparruan. 1.500 ale.

- Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Akitaniaren arteko bidaiarien hurbiltasuneko garraioa. Berehala hobetzeko proposamenak eta gomendioak. 1.500 ale.

• "Nekazaritza Politikak Euskadin" edizio elebiduna. Hainbat txostengile. Eztabaida-jardunaldia transkribatzea. 1.300 ale.

• "Industria Politikak Euskal Herrian" edizio elebiduna. Hainbat txostengile. Eztabaida-jardunaldia transkribatzea. 1.300 ale.

• "Enpresen Gizarte Erantzukizuna Euskal Herrian" edizio elebiduna. Zenbait txostengile. Eztabaida-jardunaldia transkribatzea. 1.300 ale.

Argitalpenak mailingen eta web orriaren bidez banatzen dira.

# 7. KAPITULUA

## EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREKIKO LEGERIA APLIKAGARRIA

3/1979 LEGE ORGANIKOA, 1979ko abenduaren 18koa, Euskadiko Autonomia Estatutuari buruzkoa (306. EAO, 1979-12-22koa) (32. EHAA, 1980-01-12koa).

9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa (141. EHAA, 1997-07-24koa).

1997ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuraren ERABAKIA, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena (10. EHAA, 1998-01-16koa).